

BEZEROAREKIKO HARREMANA:

Gure taldeak bezeroarekin oso gertuko harreman bat izango dugu, hau da, Igaran edukiko dugun lokalera joateko aukera izango dute. Hemen, informazioa jaso eta baita chip-a lortzeko aukera izango dute. Eraso sexistak izaten dituzten emakumeei laguntza eskaintzen diegunez, kontu handiz ibili behar dugu eta horregatik erabaki dugu gure bulegoa Igaran kokatzea eta ez Donostiako zentroan adibidez, diskretutasunaren kontuagatik. Gure helburua da beraiei konponbide bat ematea eta aldi berean honek ez dezala bere bikotearekin beste gatazka bat sortu, horregatik konfidentziala mantendu nahi dugu.

Horretaz gain, Foru Aldunditik laguntza ekonomikoa jasoko dugunez, beraien webgunean ere gure webgune pertsonalaren esteka jarriko dute. Iragarki txiki honetan, gure proiektuaren inguruan informazio oso orokorra emango dute eta behin gure taldearen webgunean sartuta gehiago informatuko dira. Harreman hau, automatizatu deritzo eta inpertsonalagoa den harren, gure bulegoko zenbakia lortzeko aukera dute eta baita beraien egoera azaldu eta galderak egin. Webgunearekin zerikusia duen guztia, anonimoa izango da, arazoak ekiditeko. Behin gurekin kontaktuan jarri direla, bulegora etorri daitezke chipa lortzeko edo informazio gehiago jasotzeko.

Aurreko guztiak bezero berrietara hurbiltzea asko erraztuko digu, bereziki Foru Aldundiko webgunean egongo den iragarkiarekin eta baita gure kontu pertsonalean eskaini ditzakegun laguntza anonimo eta diskretuagatik. Kasu gehienetan, emakume hauek erreakzionatzeko beldurra izaten dute bere bikotearen kontrako jarrera posiblearengatik, hala ere, gure ustez ideia honek kasu hauetan asko erraztu dezake egoera.

Orokorrean bezeroekin izango dugun harreman motari abantaila ugari ikusten diogu, gure bezeroarekin guztizko konfiantza edukitzea ahalbidetuko digula, dituzten galderak erantzuten eta baita egoera zail baten aurrean ahalik eta laguntza hoberena eskaintzen eta baita bezero berriak ezagutzeko gure online plataformen bitartez.